


COVID NEURRIAK

Intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 500 edo gutxiagokoa denean.



Mugikortasuna

Bermeotarrak udalerrri mugakideetara joan ahal izango dira, betiere jarduera sozio-ekonomikoak burutzeko edo kirola egiteko. Noski, aurretik indarrean egon diren salbuespenak indarrean jarraitzen dute.



Kirola, aire librean

Gehienez ere 6 pertsonako taldeetan egin ahal izango da kirola eta beti aire zabalean. Bakarkako kirola ere egin ahal izango da kiroldegian, indarrean dauden osasun eta segurtasun neurriak betez.



Eskola-kirola martxan berriz

Alarma egoera gorritik aterata, eskola-kirola berriz ere egin ahal izango da.



Kirol Federatua, baimenduta dago

Kirolari federatuek entrenatu eta lehiatu ahal izango dute azken 14 egunetan covid-19aren kasu positiboen tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiago duten udalerrietan.



Kirol ekintzak, udalerrri mugakideetatik haratago

Baimenduta dago herritik ateratzea eta beste herri batera joatea (nahiz eta udalerrri mugakidea ez izan) kirol federatuan entrenamenduak burutzeko edo txapelketetan parte hartzeko, eskola-kirolaren entrenamenduetara joateko eta gimnasioetan, kirol klubetan edo polikiroldegietan antolatutako aktibitateetara edo kurtsoetara joateko. Hori bai, kirola egingo den herri hauetan azken 14 egunetan covid-19aren kasu positiboen tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa izan beharko du.



Gehienez ere 4 pertsonako taldeak

Gehienez ere 4 lagun elkartu daitezke pertsona-talde bakoitzeko.



Ordutegia: 22:00-06:00 bitartean, denok etxean

Ordutegi horren barruan pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatuta dago.